



**ITSASONDOKO
UDALA**



PROPOSAMENAK IREKITZEKO AKTA

Itsasondon, 2021ko otsailaren 25ean goizeko 11,30ak direnean Itsasondoko Errota frontoian komunak eta aldagela irisgarriak jartzekobraren proposamenak irekitzeko biltzen dira honako hauek:

Lehendakaria Iñaki Aizpuru Oiarbide

Bokalak: Beñat Mendiguren Valles

Idazkaria: Belen Mendizabal Otegui

Goizeko 11,30ak direnean, kontratazio mahaia osatutzat ematen da.

Jarraian lizitazio honetan proposamenak aurkeztu dituzten lau enpresak aurkeztu duten Ardurapeko adierazpenak sinatuta eta legezko arauak betetzen dituzten aztertzeari ekiten zaio.

Construcciones Iturrioz, sinatuta dago eta beharrezko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu da.

Construcciones Echaide S.A. sinatuta dago eta beharrezko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu da.

Solimef Iberica S.L. sinatuta dago baina honako akats hauek ditu:

Ez du adierazten Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizilean inskribaturik dagoenik ezta ere Sektore Publikoko Lizitatzailen errejistroan.

Delsa Irun S.L. sinatuta dago, baina Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizilean eta Sektore Publikoko Lizitatzailen errejistroan inskribaturik ez dagoela adierazten du.

Kontratazio hau 2017ko azaroak 8ko 9/2017 Legeak arautzen du eta sinplifikatutako prozedura bidez tramitatzen da, aipatu araudiaren 159.1 artikularen arabera. Artikulu horretan honako hau jasotzen da:

4. La tramitación del procedimiento se ajustará a las siguientes especialidades:

a) Todos los licitadores que se presenten a licitaciones realizadas a través de este procedimiento simplificado deberán estar inscritos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, o cuando proceda de conformidad con lo establecido en el apartado 2 del artículo 96 en el Registro Oficial de la correspondiente Comunidad Autónoma, en la fecha final de presentación de ofertas siempre que no se vea limitada la concurrencia.

Beraz ikusirik Solimez Iberica S.L. eta Delsa Irun S.L. enpresak betebeharrak ez dutela betetzen, lizitazio honetan parte hartzerik ez dutela ondorioztatzen da.



**ITSASONDOKO
UDALA**



Solimed Iberica S.L. enpresari hartutako erabakiaren berri emango zaio, hiru eguneko epean, Lizitatzailen errejistroan inskribaturik egotearena justifikatzeko

Jarraian, Construcciones Iturrioz eta Construcciones Echaide S.A. enpresak aurkeztutako eskaintzak irekitzen dira, emaitza honekin:

Iturrioz egindako proposamena 56673,40 €

Echaide S.A. 57435,65 €

Aldi berean Ingurumen erizpideen atala baloratzea arkitektuaren gain uzten da.

Eta besterik gabe akta hau luzatu eta izenpetzen dut goian aipatutako leku eta egun berean.

   